

Hernanik kronika

TOKIKOM

2013ko abenduaren 23a, astelehena ::: 4.593 zk. ::: www.kronika.net



KIROL LUDOTEKA

Era guztietako kirol jokoak, gaur, eta ostegun eta ostiralean, kiroldegian

- Adin guztietako haurrentzat izango da aukera kiroldegira azaltzeko (10:00-13:00). Sarrera, libre.
- Kiroldegia itxita egongo da abenduaren 24, 25, 31 eta urtarrilaren 1ean.

KIROLA jolas modura bizitzeko aukera izango da aste honetan, hiru egunez, kiroldegian. Gaur, eta ostegun eta ostiralean goiz osoan izango da kirol ludoteka, adin guztietako haurrentzat. Sarrera

libre da, eta 10:00etatik 13:00-era edozeinek dauka azaltzea.

Kiroldegia itxita lau egunez Gabonak egun bereziak dira kiroldegian, eta lau egunez itxi egingo dute, urtero beza-

la. Abenduaren 24, 25 eta 31n itxita egongo da, eta baita urtarrilaren 1ean ere.

Txartel berriak jasotzeko aukera kiroldegian Kiroldegiko bazkide txartel

berriak egiten ari dira, eta kiroldegian bertan tramitatu behar dira eskaerak. Dena adierazi dutenez, adin txikiko-en txartelak urtarrilaren 20tik aurrera jaso ahal izango dira, arazo teknikoak medio. ||

GOIZ EGUZKI JUBILATU ETXEA

Bailea, eguberri eta urteberri egunetan

Bailea izango da Goiz Eguzki jubilatutxan, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, gabonetako festari segita. Asteburuan ere festa zuten, eta kartetako eta kaleko jokuetako sariak banatu dira.

GOIZ Eguzkin festa egunak dituzte hauek, eta datozen abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean bailea izango dute. Egun horietan, 17:30etan irekiko dute egoitza. Jakinarazi dutenez, abenduaren 24an eta 31n, 18:30etan itxiko dute egoitza. Gabon guztietan bulegoa itxita egongo da, urtarrilaren 7ra bitarte.

Festa giroan dira Goiz Eguzkin, eta larunbatean ere halaxe zuten, Santo Tomas ospatu, eta ondoren sariak banatu baitzituzten 28 herritarren artean, karta joku eta kaleko jokuetan aritu direnen artean, hain zuzen.

Zortzi modalitate eta 28 sari Karta jokuetan edo kaleko jokuetan izan, azkenean zortzi modalitatetan banatu dira sariak aurren ere, eta guztira 28 sari. Hauexek, horien artean txapeldunak.

Karta jokuetan, musean txapeldun, Dani del Rio eta



Saridunak eta elkarteko arduradunak, sariak eskutan, eta Ginkgoaren itzal ederrean.

Benjamin Miranda. Tutean, Sabino Mateos eta Gabriel Asensio. Eskoban, Lucas Yuste eta Florian Martin. Punttuan, Eugenio Urruzola

eta Patxi Apezetxea.

Kaleko jokuetan, tokan, botean, igelean eta dardotan, gizonetakoetan lau lehenengoak: Lucinio Moreno,

Francisco Navas, Antonio Monje eta Francisco Perez. Emakumezkoetan: Vicenta Lopez, M^a Paz Lunaro, Sara Merino eta Angeles Manso. ||

UDAL LIBURUTEGIA

Istorioegile tailerra

Udal liburutegian istoriak asmatzen ariko dira gaur, abenduaren 26an eta 30ean. Sormenean oinarrituta eta dena joko bidez egingo dute tailerra 8-9 urteko haurrek (11:00-12:30). ||

GABONAK

Olentzero gaur kaleetan barrena

Hernani Musika Eskolako ikasleek gaur aterako dute Olentzero kalera, bihar lan haundia izango duela eta. Kanean barrena ibiliko dira, kantuan, Gudarien plazatik 17:00etan abiatuta. ||

SASKIBALDIA

Teknikakazio saioak ostegun eta ostiralean

Saskibaloit taldeak antolatuta, gazteentzako teknikakazio saioak izango dira ostegun eta ostiralean kiroldegian, 09:30etatik 13:30etara. Txandaka egingo dute, bi egunetan txanda berdina: 09:30-11:00: LHko 5-6 mailako neska eta mutilak, eta DBH 1-2 mailako mutilak. 10:45-12:15: DBH 1-4 mailako neskak. 12:00-13:30: DBH 3-4 mailako mutilak. ||

HIRIGINTZA BATZORDEA

Eziagoko plan berezia, Batzordera

Hirigintza Batzordea bilduko da gaur, 18:30etan, 1go bilera gelan (4. pixua), eta sei puntu dituzte aztertzeko. Tartean, Eziagoko ZE.01.7 Plan Berezia onartzea. ||

SAN JOAN KONPARTSA

Errifa sariduna: 07857 zenbakia

San Joan Konpartsak egin du Gabonetako zozketa, eta zenbaki sariduna hau da: 07857. Irabazleak telefono honetara deitu behar du urtarrilaren 21a baino lehen: 695 753 138. ||

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

Orkologa, 57
943-55 79 01
HERNANI

MARISCOS HERNANI

609 67 43 44
943 55 51 56

Mariskoan espezialistak

KALE NAGUSIA, 20
20120 HERNANI
GIPUZKOA

AKELENEA
Erreategia - XIX Mendeko Sagardotegian

Abenduaren 24tik urtarrilaren 1era itxita
(biak barne)

Urtarrilaren 2tik aurrera berriz ere zuekin izango gara

Eguberri jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucila** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

SANTO TOMAS

Santo Tomas Hernaniko bazter guztietara iritsi zen

Batzuk eguna baino lehen hasi ziren, besteak egunean bertan, eta azken batzuk hurrengo egunean ere bai, baina talde askok ospatu dute Santo Tomas asteburuan.



Urumean ez zen indar faltarik ostiralean.



Eguraldi bikaina izan zuten atzo Portun.



Stop Kaleratzeak taldeko kideak, larunbatean.

ASTEBURU honetan naba-ritu da Santo Tomas egunaren itzala, Hernani osoan. Batzuk lehenago hasi ziren ospatzen: Urumea ikastola-ko ikasleak adibidez, eta herri kirolak ere egin zituzten. Inmakuladan ere hala-xe izan zen. Egunean bertan ospatu zuten gehienek, eta larunbatean erraza zen txistorra mokadu bat jatea, batean ez bazen, bestean: Gibelalde auzo elkarteak, Goiz Eguzkin, Orkolagan, Sagastialden, Goiz Argin... Stop Kaleratzeak taldeko kideak ere postua jarri zuten... Eta atzo, igandearekin, oraindik bazen txistorra gosez zegoenik eta Portuko Ibarrolaburu plazan jarri zuten inguratu zirentzako nahikoa txistorra, sagardo, edo ardo eguraldi ederrak lagunduta. II

EGURALDIA

GAUR Eguzkia eta haizetsua izango dugu bihar. Hego mende-baldeko haizeak oso zakar joko du 100 km/h abiaduran. Tenperaturak gora. Min.8° / Max.15°

BIHAR Minimoek gora eta maximoek behera bihar. Hego mende-baldeko haizea protagonista, 120 km/h boladekin. Ostertak. Euri arriskua azken orduetan. Min.12° / Max.14°

(euskalmet)



❖ PSE-EE

Iñaki Arriola idazkari nagusia Hernanin, sozialisten urte bukaerako jaiak

Hernaniko PSE-EE alderdiak festa eguna zuen atzo, eta Elkano kaleko egoitza bete egin zen, urte zaharrari agur esan eta urte berriari ongi etorria egiteko. Besteak beste, bertan izan zen Iñaki Arriola, sozialisten Gipuzkoako idazkari nagusia, eta baita Hernaniko PSE-EEko Pablo Peñacoba, Estefania Morcillo eta beste hainbat ere. II

◆ FUTBOLA

Liderraren etxetik puntu bat, ez da txarra...

Erregionalen Ohorezko mailan, Hernanik 2-2 berdindu zuen Aurrera taldearen kontra. Emaizak dion bezala partidua oso parean joan zen, eta Hernanik orain arteko bolada ona ez dela kasualitatea erakutsi zuen. Hiru puntu hobeak izango ziren, baina bakararra ere ez da txarra, liderraren etxetik ekariz gero. II

❖ ERRIGORA

Nafarroa hegoaldean euskerari laguntzeko 8.000 saski saldu dira; Hernanin, 150 inguru

Errigora elkarteak antolatu du kanpaina Nafarroa hegoaldeko euskerari bultzada bat emateko, hango AEK eta Lodosako Ikastolari emateko, hain zuzen. Sekulako emaitza lortu dute, han bertako produktuz egindako 8.000 saski saldu baitira Euskal Herri osoan, eta horietatik 150 bat Hernanin: Langilen, AEKn eta Institutuan. Guztira 120.000 euro lortu dituzte kanpaina horrekin. II

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			ESKU PELOTA - Gipuzkoako Txapelketa		
Mut. Erreg. Oh.	Aurrera-Hernani	2-2	Seniorrak front	Esnaola-Oiaga/Lizaso-Erreka	4-22
Mut. Erreg. Gor.	Hernani-Behobia	2-1	Seniorrak trink.	Markel Lizeaga/Urnieta	27-40
Jub. Mut. Eu.	Zaramaga-Hernani	4-1	Seniorrak trink.	Ander Lopez/Gazteleku	35-18
Jub. Mut. Oh.	Oiartzun-Hernani	1-1	Seniorrak trink.	Egoitz Altuna/Eple	25-35
Kad. Mut. Oh.	Hernani-Vasconia	1-2	Seniorrak trink.	Ioritz San Sebastian/Behar Zana	39-40
Kad. Mut. 1.	Urnieta B-Hernani	2-2	Jubenilak trink.	Suharri Rodriguez/Mundarro	35-27
Infantil txiki	Añorga-Hernani	2-2	Jubenilak trink.	Ekaitz Cisneros/Oiarpe	30-35
Inf. Mut. Oh.	Aizkorri Goierrri-Hernani	0-1	Kadeteak trink.	Iñaki Urruzola/Urnieta	4-30
Inf. Mut. 1.	Hernani-Martutene	1-0	Infantilak front.	Alde Zaharra/Oihan Zugasti	0-2
Inf. F-8	Hernani-Orioko	0-3	ESKU PELOTA - 4/5eko Torneoa		
Alb.	Herrera-Hernani	3-8	Seniorrak	Eneko Aizpitarte/Iñigo Urkizu	22-17
ERRUGBIA			Seniorrak	Josu Altuna/Jon Etxegoien	22-9
Mut. Ohor. Maila	Hernani-VRAC	22(b)-24(b)	Kadeteak	Endika Arizmendi/Ioritz Berasarte	20-22
Mut. Euskal Liga	Hernani/Txinparta - Atletiko SS	15-13	Kadeteak	Xabat Pagola/Alain Agirre	22-6
Mut. Euskal Liga	La Unica - Hernani/Landare	25-5	ERREMONTA		
Kad. (sub18)	Hernani-Atletiko SS	85-0	1go partidua	Otaegi-Saldias/Ezkurra II-Labaka	35-26
Infantil (sub16)	Bera Bera-Hernani	12-33	2. partidua	Urriza-Olazar/Juaristi-Etxeberria III	40-36
Infantil (sub14)	Hernani - Zarautz/Beltzak	29-21	3. partidua	Ezkurra-Endika/Etxeberria IV-Ion	30-40
			4. partidua	Juanenea-Zubiri/Etxabe II-Larrañaga	25-30

ikuszirkus Andoain

Abendua 26 - 30

26 20:00 Paper world - MIMIRICHI CLOWNS

27 12:00 TIRITIRANTES - Cirqueamos
20:00 Patas arriba, una historia de circo

28 20:00 Diábolo Clasic Metal - Hnos.INFONCUNDIBLES
Rêves d'été - Circo PITANGA

29 20:00 Second Life - CIRQUE ULATION LOCALE
30 20:00 Txarlestrop - ZIRIKA ZIRKUS

basterokulturgunea.blogspot.com/es/
Tlf: 943.30.35.40

